

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 4832** 17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira.

ZIOEN AZALPENA

I

Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera nazioarteko pandemiatzat hartu zuenetik hona, hots, 2020ko martxoaren 11tik hona, izurritea azkar bai azkar hedatu da, bai estatuan, bai munduan. Inoiz ez bezalako osasun-krisi hori izugarri hedatu da; batetik, herritar ugari kutsatu direlako (gaur egun, berrehun mila baino gehiago dira Espainian), eta, bestetik, askotariko eskubideak, banakoak zein taldekoak, arrisku larrian jarri dituelako. Hori dela eta, egoera horri aurre egiteko xedez, berehalako neurriak hartu behar izan dira.

Horiek horrela, Alarma, Salbuespen eta Setio Egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoak Gobernuari ematen dion ahalmena baliatuz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, baina, izurritearen bilakaera ikusita, dekretuaren indarraldia luzatu egin behar izan da, hirutan luzatu ere, Diputatuen Kongresuak horretarako baimena eman ondoren, martxoaren 27ko 476/2020, apirilaren 10eko 487/2020 eta apirilaren 24ko 492/2020 errege-dekretuen bidez.

Hartu behar izan diren euste-neurriak berebiziko eragin ekonomikoa izaten ari dira; izan ere, neurriok ekonomia- eta gizarte-jarduera aldi baterako murrizten dute, mugikortasuna mugatzen dute eta hainbat esparrutako jarduera eten egiten dute; horren ondorioz, familiak eta langileak errentak galtzen ari dira, bai eta Espainiako ekonomiari atxikitako enpresak eta sektoreak ere.

Horregatik, neurri ekonomiko eta sozial jakin batzuk hartu dira, larrialdiari osasun-erantzun egokia emateaz gain familia, langile eta gizatalde kalteberen babesa bermatzen dutenak eta ekoizpen- eta gizarte-ehunari eusten dietenak ondorioak txikiagotuz eta jarduera ekonomikoa lehenbailehen suspertzen lagunduz.

Krisiak eta haren ondorioek bereziki eragindako sektore ekonomikoen artean, kulturarena dugu. Kulturgune eta antzeztoki guzti-guztien jarduera erabat etenik geratu da, eta, horren eraginez, arlo horretako profesionalek ez dute inolako diru-sarrerarik eskuratu eta haien egoera guztiz larriagotu da, sektorearen egiturazko ahultasuna dela eta. Egoera horri aurre egiteko, ezinbestekoa da beste neurri batzuk ezartzea, denontzat hartuta daudenak osatu eta egokitze, sektorearen berezitasunak aintzat harturik. Izan ere, berezitasun horiek direla kausa, askotan, aurreikuspen orokorrak ez dira eraginkorrak izan, ez langileak babesteko, ez enpresak babesteko (bereziki, langile autonomoak eta ETEak), zeinek likidezia galdu baitute eta ez baitute izan finantzabideari heltzeko modu egokirik.

Gainera, COVID-19ak eragindako krisiak kalte nabarmena egiten die kultura-sektoreko emakumeei, eta haietako asko desberdintasun-egoera batean zeuden ordurako. Hori dela eta, neurri berri horiek aplikatu eta garatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izatea hartuko da kontuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Eraginkorra izateko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 14. artikuluan araututa dagoen botere publikoen lehen jarduera-irizpide orokorrekarekin bat etorriz.

Gogoratu behar da kulturak oso pisu nabarmena duela Espainiako ekonomian. Espainiako Kulturaren Kontu Satelitean ateratako emaitza nagusien arabera, 2017an, kultura-sektoreak Espainiako barne produktu gordinari (BPGd) egindako ekarpena % 2,4koa izan zen, eta % 3,2koa, jabetza intelektualarekin lotutako jarduera ekonomikoen

multzoa kontuan hartuta. Kultura-arloei dagokienez, liburuaren eta prentsaren arloa nabarmendu behar da, BPGd osoari % 0,75eko ekarpena egin baitzion 2017an; arlo hori kultura-jarduera guztien % 31,5 da. Horren ondotik, garrantziaren arabera, ikus-entzunezkoen eta multimediaren arloa dator (% 28,7), besteak beste zinema, bideo, bideo-joko, musika grabatu eta telebistari lotutako jarduerak garatzen dituen. Gainerako arloen artean, hauek dira aipatzekoak: arte plastikoak (% 14,8), arte eszenikoak (% 9,8) eta ondarea, artxiboak eta liburutegiak (% 8,6). Jabetza intelektualari lotutako jardueretan, % 60,9 kulturaren arlokoak dira, eta gainerako % 39,1 publizitatearen eta informatikaren arlokoak; horien irismena jabetza intelektualarekin lotura duten jardueretara mugatzen da. Hortaz, azaldutako emaitzek argiro erakusten dute jabetza intelektualarekin zerikusia duten jarduerak eta kultura-jarduerak garrantzi handia dutela Espainiako ekonomiaren barruan.

Ildo beretik, garrantzi horren erakusgarri, kultura-enpleguaren bolumena 710,2 mila lagunekoa izan zen 2019an, hau da, Espainiako enplegu osoaren % 3,6, urteko batezbestekoa aintzat harturik; eta kultura-enpleguaren % 68,8 soldatuko langileek osatu zuten. Enpresa-ehunari dagokionez, azpimarratzekoa da jarduera ekonomiko nagusitzat kultura zuten 122.673 enpresa jasota zeudela Enpresen Direktorio Nagusian (DIRCE) 2018. urtearen hasieran, hau da, direktorioan jasotako enpresa guztien % 3,7.

Horren haritik, ez da ahaztu behar Konstituzioaren 44. artikulua ezartzen duela botere publikoek kulturari heltzeko modua bermatu behar dietela herritar guztiei eta kultura sustatu behar dutela espainiar guztien ezin besterenduzko eskubide gisa.

Kultura sustatuko bada eta herritarrek kulturari heltzeko modua izango badute, botere publikoek nahitaez konpromisoa hartu behar dute hori guztia ahalbidetzeko tresnak ezartzeko; konpromiso hori, besteak beste, kultura-jarduera bera sortzea, garatzea eta hark aurrera egitea bermatzen duten sustapen- eta babes-neurrien bidez gauzatu behar da.

Kultura, funtsean, sormen-askatasuna da, eta, beraz, botere publikoak ez dira kulturgintzaren eragile zuzenak; aitzitik, kultura-egitatearen benetako bultzatzaileak —hots, profesionalek— gure Magna Cartan jasotako eskubidea bermatzeko behar diren baliabideak izan ditzaten laguntzea da haien eginkizuna. Izan ere, gure Konstituzioak ez du kultura eliteentzako luxuzko ondasuntzat jotzen, gizarte demokratikoaren ardatz egituratzailetzat baizik.

Horregatik guztiagatik, kultura-egituren iraupena bermatu behar da, bai eta sektorean diharduten langile eta enpresena ere, kulturari heltzeko eskubidea gauzatuko badugu. Honako xedapen honek, helburu horri erantzuten dionez gero, kultura-sektoreari laguntzeko neurri batzuk onartu ditu, COVID-19ak sorrarazitako egoerari aurre egiteko. Aipaturiko neurriek laguntza-elementuak jasotzen dituzte, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua ildotik. Laguntzen oinarri juridikoa Aldi Baterako Esparru Nazionalak zedarritzatzen du (SA.56851 Laguntza, Batzordearen apirilaren 2ko Erabakiaren bidez onartua); beraz, aipaturiko Aldi Baterako Esparru Nazionalaren 8.1 atalaren arabera, tresna horren babesean ezartzen diren laguntza-lerro berriak ez zaizkio Europako Batzordeari bereiz jakinarazi behar.

II

Hauxe da errege lege-dekretu honen egitura: bost kapitulu, hamabost artikulua, zortzi xedapen gehigarri eta hamahiru azken xedapen.

I. kapitulua kultura-sektoreko enpresei eta langileei laguntzeko neurri orokorreari buruzkoa da. Lehenik eta behin, sektorearen finantzaketa erraztu behar da; izan ere, aurreko errege lege-dekretuetan horretarako ezarritako ohiko tresnak ez dira izan uste bezain eraginkorrak, arlo horretan ez baitago bermatuta beharrezkoak diren finantzaketa eta likidezia eskuratzeko aukera. Horregatik, jarduera horien berezitasunak kontuan hartzen dituzten bitarteko espezializatuak premiaz bideratu behar dira. Hala, Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari bi dirulaguntza zuzenean ematea xedatu da, sozietate horren hornidura teknikoaren funtse handitzeko eta kultura-sektoreari emandako maileguei atxikitako abalen irekiera-komisioa diruz laguntzeko, sektoreko eragileen finantzaketa baldintza hobeetan lortzeko lerroa zabaltzeko xedez, Europako Batzordearen

Europa Sortzailea programaren finantza-bermerako tresnaren laguntzaz. Finantzaketa eskuratzeko ildo hori, kultura-arlo tradizionalenetara ez ezik, kultura digitalari zuzenean lotzen zaizkion beste arlo batzuetan ere eskainiko da, hala nola bideo-jokoaren arloan. Azkenak kultura, teknologia eta berrikuntza-gaitasun handia uztartzen ditu, kultura-kontsumoko ohitura berriak sortzen ditu eta gero eta eragin handiagoa du kulturean: Espainiako Kultura Ohitura eta Jardueri buruzko 2018-2019 aldiko Inkestaren arabera, Espainiako biztanleen % 13,8k bideo-jokoak erabiltzen ditu, gutxienez, hilean behin. Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietatea dugu Espainiako kultura-sektoreko enpresa txiki eta ertainei abalak emateko finantza-tresna espezializatu bakarra, eta, azken urteotan, funtsezko lana egin du kultura-sektoreko enpresa horiek guztiek banku-finantzaketa eskura dezaten eta hainbat kultura-proiektu abian jar ditzaten.

Bigarrenik, orain arte ezarritako estaldura-tresnek babestu ez dituzten kultura-sektoreko langileentzako laguntza egituratu da. Horrela, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean dauden eta ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten taldeari erantzun nahi izan zaio, guztiz kalteberak baitira egungo egoeran; izan ere, arte-jarduera berez aldizkakoa denez, ezin dituzte bete langabezia-prestazioa jasotzeko eskubideari doazkion baldintzak. Horretarako, langabezia-prestazioa jasotzeko ezohiko bide bat zabaldu da, eta horretaz baliatu ahal izango dira, jarduerarik ez badute haiek lan profesionala egiten duten lokalak edo instalazioak (irekiak zein itxiak) ixteko agindua eman delako COVID-19a dela eta.

II. kapituluak arte eszenikoei eta musikari laguntzeko neurriak arautzen ditu, hainbat ikuspegitatik. Bereiziki nabarmentzekoa da arte eszenikoei eta musikari laguntzeko aparteko laguntzen sistema ezarri dela, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz jasandako kalteak arintzeko. Laguntza horiek salbuespenezkoak izango dira, eta behin emango dira. Bi lerro erabiliz emango dira, mota guztietako kultura-egiturei eusteko eta jarduera eszeniko eta musikalei eta kultura-proiektuei eusteko. Azken batean, enpresa-, elkarte- eta arte-sarea berehala eta premiaz babesteko neurriak dira, sare hori funtsezko kultura-azpiegitura gisa ulertuta, egitura horiek gabe ezinezkoa izango bailitzateke ohiko kultura-jarduerara itzultzea. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak (INAEM) ezarriko du laguntza-sistema, publizitatearen, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarrituta. Laguntzak norgehiagoka-prozedurari jarraituz emango dira, eta errege lege-dekretu honetan eta deialdiaren ebazpenean xedatutakoari men egin beharko diote. Horiek finantzatzeko, aparteko kreditu bat ematea baimendu da.

Gainera, bide bat ezarri da sektoreko profesionalek aurrerakinak eta kalte-ordainak jaso ahal izan ditzaten, sektore publikoarekin kontratatuak dituzten ikuskizunak geroratzen edo bertan behera geratzen badira ere eta ikuskizun horien zenbatekoa 50.000 eurotik beherakoa bada ere. Lehenik eta behin, osasun-agintariek hartutako neurriek eta, geroago, alarma-egoeraren deklarazioak antzokiak, aretoak eta antzeko instalazioak ixtea ekarri dute, eta, horrekin batera, aurretiaz egindako interpretazio artistikoen eta ikuskizunen kontratuak suntsiaraztea edo etetea. Hori dela eta, kontratazio-organoari ahalmena ematen zaio etendako kontratuen zenbatekoaren ehunekoren bat aurrerakin gisa onartzeko eta kontratua suntsiarazteagatik kalte-ordain bat aitortzeko, baldin eta etetearen edo suntsiarazpenaren zuzeneko kausa agintari eskudunek COVID-19aren krisiari aurre egiteko hartutako neurriak izan badira.

III. kapituluak, zinemagintzari eta ikus-entzunezko arteei laguntzeko neurriak jaso dira. Zinema-ekoizpenaren eta -emankizunen arloan ere eragin handia izan du osasun-krisiak. Gainera, zinemagintzako laguntza-sistema mugarri batzuetan oinarrituta dago, hala nola filmatzen hastea, filma kalifikatzea, nazionalitatea lortzea, filma zinema-areto komertzialetan estreinatzea eta kostua aitortzea. Horiek guztiek ondoz ondoko betebeharrak sortzen dituzte, eta, beraz, horietakoren bat bete ezean, halaberharrez, ondokoak ere ez dira beteko. Hori dela eta, baldintza horiek betetzeko modua malgutu eta egungo inguruabarretara egokitu behar da, enpresei dagozkien betebeharrak betetzeko aukera emanda haiei egotzi ezin zaien testuinguru batean. Era berean, aldi baterako egokitu da filmen «estreinaldi komertzialaren» definizioa, eta aukera emango da, zinema-

aretoak berriz ere martxan jarri arte, halakotzat hartzeko telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen, telebista-kanalen zabalkundea egiten duten komunikazio elektronikoko zerbitzuen eta programa-katalogoen zerbitzuen bidez egindako estreinaldiak. Azkenik, zinema-aretoen jarduera ere eten denez, haiei zuzeneko laguntzak ematea ezarri da, bai jarduera eten ondoren dirauten gastuei aurre egiteko, bai jarduerara itzultzeko beharrezkoa den sustapena egiteko. Era berean, aparteko kreditu bat ahalbidetu da horiek finantzatzeko.

IV. kapituluan, liburuaren sektoreari eta arte garaikidearen arloari buruzko neurriak arautu dira. Lehenik eta behin, laguntzen ezohiko tresna bat sortu da, liburu-sektoreko egiturei eta liburu-horniduraren kateari eusteko premiazko laguntza bermatzeko xedez. Liburuaren eta Irakurzaletasunaren Zuzendaritza Nagusiak garatuko du laguntza-sistema, bere eskumenak erabiliz, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarrituta. Laguntzak norgehiagoka-prozedurari jarraituz emango dira, eta errege lege-dekretu honetan eta deialdiaren ebazpenean xedatutakoari men egingo diote.

Bigarrenik, arte garaikideari gagozkiola, laguntzak egituratu dira, batetik, arte-mota horren sustapenari dagozkion zuzkidurak areagotuz, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako kalteari berehala erantzuteko helburuz. Eta, bestetik, Espainiako arte garaikidea erosteko aparteko zuzkidura gertatuz. Horrela, arte garaikidearen barne-merkatua bultzatuko da, eta, gainera, lehen aldiz emango zaio arlo horri zenbateko espezifiko bat, Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiak Estatuko Bilduma Publikoetarako artelanak erosteko xedez urtero gauzatzen duen gainerako aurrekontutik bereizia. Kapitulua honetan xedatutako laguntza finantzatzeko, dagokion aparteko kreditua eman beharko da.

Azkenik, V. kapituluan, beste neurri batzuk arautzen dira; besteak beste, COVID-19aren ondorioz bertan behera geratu diren diruz lagundutako kultura-jardueretarako hartzen direnak. Neurri horiei esker, segurtasun juridikoa emango zaie esleitutako dirulaguntzen onuradunei. Gainera, Kirol Kontseilu Gorenak izapidetutako laguntzei buruzko xedapen bat jaso da (horien zenbatekoa kirolariak hainbat lehiaketatan lortutako emaitzen arabera zehazten dira). COVID-19aren bilakaerak sorrarazitako egoerak lehiaketa horietako asko bertan behera uztea ekarri duenez, beharrezkoa da laguntza horiek ematen jarraitzeko modua arautzea, lehiatzerik izan ez duten eta, beraz, lehiaketen emaitzen mende dauden laguntzak eskuratzerik izan ez duten kirolari onuradunak laguntza horiek gabe ez geratzeko, egoera honen arrazoia ezin baitzaie inola ere kirolariei egotzi.

Beste alde batetik, lehen xedapen gehigarriak ezartzen du, 2020ko ekitaldian, une orotan, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta hari atxikitako erakunde publikoen eskumen eskusiboko erakundeetan erakusteko aldi baterako lagatako obra edo obra-multzo guztiei dagokienez Estatuak emandako konpromisoen guztizko muga. Arte-sorkuntzari eta zinematografiari buruzko presazko neurriak onartzen dituen abenduaren 28ko 26/2018 Errege Lege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrak konpromiso horien 2019ko ekitaldiko muga ezarri zuen; beraz, 2020. urteari dagokiona zehaztu behar da, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutako betetze aldera.

Bestalde, bigarren xedapen gehigarritik seigarrenera artekoek aparteko interes publikoko gertakaritzat aitortu dituzte Berlanga plana, Alicante 2021 programa, «Espainia Ohorezko Herrialde Gonbidatua Frankfurtoko 2021eko Liburu Azokan» ekitaldia, Madrilgo Errege Antzokiaren kaleko opera sustatzeko plana eta «Gran Teatre del Liceu antzokiaren eraikuntzaren 175. urteurrena» delako gertakaria, sektorea suspertuko duen finantzaketa pribatua lortzen laguntzeko.

Hurrengo xedapen gehigarriaren helburua da langabezia-sorospena edo erretiro-pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten egile eta artisten taldearen babesa erraztea. Alde horretatik, jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeek bertako bazkide behartsuenentzat duela hamarkada batzuetatik abian jarritako laguntza-funtsak behar-beharrezko tresnak dira; hala, batzar orokorrari aldi baterako ahalmena eman behar zaio laguntza-jarduerak egiteko baliabideak areagotu ditzaten, kide ahulenen mesedetan eraginkorrak direla bermatzeko.

Bestetik, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak, oro har, kontratu publikoen lizitazioak etetea ekarri zuen. Arauak salbuespen batzuk ezarri zituen arren, baliteke alarma-egoeraren iraupena luzatzea kaltegarria suertatu izana, kasu batzuetan, kontratu publiko guztien xede diren interes publikoentzat.

Kontratazio-prozeduretan, badira prozedura-berme ugari, eta horien helburua da interesdunak babesten dituzten funtsezko printzipioak errespetatzen direla ziurtatzea. Halatan, printzipio horiek modu harmonikoan eta lehen aipatutako interes publikoko beharrek koordinatuta aplikatu behar dira. Hori dela eta, nahiz eta bere garaian alarma-egoeraren hasierako aldian neurri gogorragoak hartzeak zentzuzkoa zirudien COVID-19aren aurka borrokatzeko nahitaez ezarritako neurri mugatzaileen aurrean administratuen eskubideei kalterik ez egiteko asmoz, gaur egun, egoera hobetzen eta adostutako neurriak pixkanaka arintzen hasi diren honetan, zentzuzkoa dirudi lizitazio publikoei ezarritako etendura orokorra kentzeak, lizitatzailen eskubideak murrizten edo eskasten ez diren kasu guztietan. Inguruabar hori guztiz bateragarria da kontratistaren hautaketa kontratazio-prozeduren izapidetze elektronikoaren bidez egiaztatzen denean. Bada, izapidetze horrek eskatutako dokumentazioa era elektronikoan aurkeztea ahalbidetzen eta bermatzen du, bai eta prozedura-izapidetean sarbide elektronikoa izatea ere. Zortzigarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspen horri esker, baldintza horiek betetzen dituzten kontratazio-prozedura berriak hasi ahalko dira, eta, gainera, bidezkoak diren errekurtsio berezietara hedatuko da xedatutakoa.

Finantzaketa pribatua sustatzeko eta errazteko ildo horretan, arauzko aldaketa batzuk ere erabaki dira. Hala, azken xedapenetako lehenak Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 36. artikulua aldatu du, eta zinemagintzari lotutako zerga-pizgarriak igo ditu, Espainiako zinematografia eta ikus-entzunezkoen sektoreak estatuan eta nazioartean lehiakortasun handiagoa izan dezan laguntzeko neurri gisa. Proposatutako aldaketaren bidez, nazioarteko ekoizpenak eta filmaketak erakarri eta ikus-entzunezkoen sektorearen jarduera ekonomikoa areagotuko da Espainian, eta, horren ondorioz, enplegua sortuko da eta horri atxikitako zerga-sarrerak handituko dira; gainera, neurriak Espainia sustatzen lagunduko du.

Era berean, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea handitzea mezenasgo-proiektuen finantzaketan. Hori dela eta, Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legea aldatu da, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergapekoek egindako dohaintzetan ehuneko bost puntu igo da araututa zegoen kenkari-portzentajea. Igoera hori Espainiako lurraldean jarduten duten baina establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotutakoei aplika dakieke. Era berean, azken xedapenetako hirugarrenetik bosgarrenera artekoetan, epea luzatzen zaie aparteko interes publikoko gertakaritzat jotzen diren beste programa batzuei.

Bestalde, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen da. COVID-19ak sorrarazitako egoera sozioekonomikoak eraz justifikatzen du premiazko neurriak hartzea unibertsitateko prezio publikoen sistema 2020-2021eko ikasturteari begira aldatzeko. Hala, errege lege-dekretu honetan jasotako azken xedapenetako zazpigarrenak urkilen sistema baztertzen du, sistema horrek eragin nabarmena izan baitu prezioen egituran. Sistema horren ondorioz, prezio guztiak igo ez ezik, nabarmen handitu dira prezioen arteko aldeak ere zerbitzua ematen den autonomia-erkidegoaren arabera, eta horrek eragin larria izan du unibertsitate-hezkuntza publikoan sartzeko aukeran eta espainiarren eskubide- eta betebeharrak berdintasunaren printzipioan. Aldaketa horren bidez, berriz, goi-mailako irakaskuntza publikorako sarbidea sustatuko da, eta unibertsitateko prezio publikoak handiak izateak ez du ekarriko ekitaterik ez izatea eta ikasketak utzi beharra. Era berean, argitu behar da aldatutako xedapenak ez duela izaera organikorik, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraikiz.

Beharrezkoa da, era berean, Fundación España Deporte Global fundazioaren patronatuaren osaera doitzea, Espainiako kirol-federazioen eta lehiaketa ofizial eta

ez-ofizialen ordezkaritza batek parte har dezan bertan (fundazio hori Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premia-azken neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez sortu zen). Horrela, erakundearen gobernu-organismoaren jardunbidea eta erabakiak hartzeko prozedura berehala erraztuko da, organismoaren ohiko jarduna bizkorragoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Gainera, beharrezkotzat jotzen da sektore publikokoak izan eta botere adjudikatzailatzat hartzen ez diren erakundeek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuei buruzko egungo arauketa aldatzea, horiei buruzko azalpena osatzeko eta gehiago zehazteko —batzuetan, horien gaineko interpretazioak zalantzak sortu izan ditu—, bai eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako organismoek esleituak dituzten eginkizunak ahalik eta eraginkortasun eta koordinazio handienaz bete ahal izateko ere. Izan ere, bi alderdi horiek behar-beharrezkoak dira gaur egun, COVID-19ak sorrarazitako egoera ekonomiko eta soziala aintzat harturik, betiere lehia askea erabat errespetatuz. Hala, azken xedapenetako zortzigarrenak aldatu egin du azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora; horren haritik, argitu du botere adjudikatzailatzat hartzen ez den sektore publikoko erakunde baten bitarteko propio pertsonifikatutzat jotzeko eskatzen den kontrolaren betekizuna botere adjudikatzailaiei jartzen zaien hori bera dela. Gainera, mandatu horizontalei aplikatu beharreko araubidea zehaztu da, hau da, Estatuko sektore publikokoa izan eta aipatutako ezaugarriak dituen erakunde batek sektore bereko beste bati mandatu bat ematen dionean eta bi-biak zuzenean edo zeharka sektore horretako beste erakunde batek kontrolatzen dituenean aplikatu beharrekoa; eta mandatura hartzen duen erakundeak kasu horietan jaso beharreko konpentsazioaren araubidea ere zehaztu da.

Azkenik, osatu eta argitu dira COVID-19ak sorrarazitako egoeratik etorri diren ondorioei aurre egiteko kontratazioaren arloan hartutako neurriak, hau da, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan jasotakoak. Horretarako, aplikazio-eremua argitu da, barnean direla sektore publikoko erakundeek baldintza-agiriaren arabera atxikita dauden kontratazio publikoko araudia zeinahi delarik ere egin dituzten eta gaur egun indarrean dauden kontratuak. Bestalde, errege lege-dekretuan xedatutakoari jarraikiz etenda geratu diren elkarren segidako zerbitzu- eta hornidura-kontratuak, kontratazio-organismoak aukera izango du kontratatari dagokion kalte-ordainaren zenbateko zenbatetsiaren konturako aurrerakinak ordaintzeko. Eta, emakiden arloan, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko araubidearen alderdi jakin batzuk zehaztu dira, eta, bidenabar, kontratazio publikoari buruzko legerian araututako mandatu jakin batzuen erregulazioa zehazteko beharrazatik.

III

Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «premia apartekoa eta presazkoa egonez gero», baldin eta xedapenok ez badute eraginik, ez Estatuaren oinarritzko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako lege-gintza justifikatzen duen helburua honako hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eskatu duen bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bati aurre egitea, zeinak eskatzen baitu, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, arau bat egitea berehala, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Inolako zalantzarik gabe, gure herrialdeak nazioarteko garrantziko osasun publikoko larrialdia dela-eta aurrean duen egoera eta orain dela gutxi deklaraturako alarma-egoera nahikoa arrazoi dira hainbat neurri hartzeko aparteko eta presazko beharrezana justifikatzeko. Gainera, Konstituzio Auzitegiak ontzat jotzen du neurri ekonomikoak errege lege-dekretuen bidez hartzea, baldin eta esplizituki eta arrazoituz justifikatzen badira bai beharra (hau da, egoera ekonomikoak azkar erantzutea eskatzea) eta bai presa (hau da, dena delako neurria arauzko bide arrunta erabiliz izapidetu eta denboran atzeratzeak kalteren bat ekartzeko arriskua izatea).

Nazioarteko erakundeak eta ikerketa-zerbitzu nagusiak kontu handiz ari dira kalkulatu COVID-19ak egungo egoera aldarokorrean ekonomian izango duen eraginaren tamaina, ziurgabetasuna nagusi baita, baina ez dago zalantzarik eragina oso handia izango dena. Azkenaldiko kalkuluen artean, Nazioarteko Diru Funtsaren Munduko Ekonomiaren Aurreikuspenen Txostena argitaratu da duela gutxi, 2020ko apirilean. Txosten horrek dioenez, osasun-krisiak eragin handia izango du hazkundean eta enpleguan, Espainian ez ezik, gure inguruko beste herrialde batzuetan eta, oro har, munduko ekonomian ere; hala ere, funtsean, txostena egin dutenek espero dute pandemia 2020ko bigarren seihilekoan desagertuz joatea eta, horrekin batera, euste-neurriak bertan behera utzi ahal izatea, jarduera ekonomikoa apurka-apurka leheneratzen joan dadin, aplikaturako politikek emandako laguntzari esker. Espainiako Bankuak ere aurtengo eta datorren urteko hazkunde-aurreikuspenak argitaratu ditu, eta, haietan, jarduera murriztuko den hainbat egoera jasotzen dira.

Testuinguru hori kontuan hartuta, errege lege-dekretu honek segida ematen die Espainiako Gobernuak aurreko asteetan mobilizaturako laguntza publiko eta pribatuei, eta indartu egiten ditu, eta arreta jartzen du kultura-sektoreko enpresa eta langileentzako laguntzan, osasun-krisiak sorrarazitako salbuespenezko egoerak ekarri dituen premiei erantzuteko berariazko neurriak hartuz, ekonomia- eta gizarte-eragileei babesa emanez eragina ahalik eta txikiena izan dadin eta susperraldi ekonomikoa ahalbidetuz pandemiak eragindako krisia apaltzen hasten denean. Xedapen honetako aurreikuspenek helburu horri erantzuten diote, eta COVID-19aren ondorioei aurre egiteko hainbat tresnaren bidez sektorearen eta kulturako profesionalen egoera hobetzera bideratuta daude.

Halaber, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarritz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiak erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi inolaz ere konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek modu zabal eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari berehala heltzen laguntzen duten neurriak onartzeko legezko helburuarekin bat baitatoz (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundearen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskundeei buruzko zuzenbide orokorrean ere. Zehazki, eta zerga-arloko neurriei gagozkiela, Konstituzio Auzitegiak maiatzaren 8ko 100/2012 epaiak 9. oinarri juridikoan adierazi bezala, «zerga-arloa lege-erreserbaren printzipioaren mende egoteak (Espainiako Konstituzioaren 31.3 eta 133.1 eta 133.3 artikulua) eta erreserba hori erlatiboa eta ez absolutua izateak ez du nahitaez esan nahi zerga-arloa lege-dekretuaren erregulazio-eremutik kanpo dagoenik, eta, hortaz, zerga-arloa hor sartu ahal izango da, baldin eta

Konstituzioan kasu horietarako ezarritako baldintzak betetzen badira eta kanpoan utzitako gaietako terminoaren zentzu konstituzionalean «eragiten» ez bazaie» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 8. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 4. oinarri juridikoa; eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Hau da, «gai bat erlatiboki edo modu absolutuan lege arrunt batez arautu beharrekoa izateak ez du kentzen ezohiko eta behin-behineko eran lege-dekretuz arautzea» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 60/1986, maiatzaren 20koa, 2. oinarri juridikoa, eta 182/1997, urriaren 20koa, 8. oinarri juridikoa). Auzitegi horrek, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua muga materiala interpretatzeko orduan, «ez dio erreparatu behar, beraz, gai jakin batean (kasu honetan, zergen gaian) lege-erreserbaren printzipioa adierazten den moduari (izaera absolutua edo erlatiboa duen eta erreserba horrek gai horren zer alderdi babesten dituen edo ez), baizik eta lege-dekretuak Konstituzioaren I. tituluan araututa dagoen eskubide, betebeharrak edo askatasunen bati «eragin» ote dion aztertu behar du», eta horrek eskatuko du «kasu bakoitzean ukitu den eskubidearen edo betebeharraren konfigurazio konstituzionala eta dena delako erregulazio zehatzaren izaera eta irismena kontuan hartzea» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 8. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 4. oinarri juridikoa; 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa, eta 329/2005, abenduaren 15ekoa, 8. oinarri juridikoa). Eta, horri dagokionez, Konstituzioaren I. titulua bigarren kapituluko 2. atalean, «Herritarren eskubideak eta betebeharrak» izenburupean, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua «benetako agindu juridikoa» ezartzen du, «eskubide eta betebeharraren iturria dena», eta, haren arabera, «herritarrek, zergen bidez, gastu publikoei aurre egiten edo horiek finantzatzeko lagundu behar dute» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 6. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 5. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Ondorioz, «lege-dekretuak ukitu ezin dituen betebeharrak bat da Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikuluan aipatzen den gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharra» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 5. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa) (...).

Bada, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua «ahalmen ekonomikoaren irizpidearekin lotzen du laguntzeko betebeharrak», eta, era berean, «zerga-sistema osoarekin» lotzen du, «ez edozein tributu-figurarekin zehazki». Beraz, argi geratzen da, «lege-dekretuak ezin izango dituzte aldatu ez araubide orokorra eta ez zerga-kargaren zehaztapenean eragina duten funtsezko elementuak eta, horrela, ezin izango du ukitu gastu publikoei bakoitzaren aberastasunaren arabera eta zerga-sistema zuzen baten bidez eusten laguntzeko betebeharrak orokorra» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 18koa, 7. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Hala, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua urratuko du «edozein esku-hartze edo arau-berrikuntzak, baldin eta, duen garrantzi kualitatibo edo kuantitatiboagatik, nabarmen aldatzen badu bere ahalmen ekonomikoaren arabera laguntzera behartuta dagoen zergapekoak zerga-sisteman duen posizioa» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 7. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Beraz, kontuan hartu behar da «kasu bakoitzean zer zergatan duen eragina errege lege-dekretuak —zerga-sistema osoan zer izaera, egitura eta funtzio dauzkan zehaztuta, bai eta gaitasun ekonomikoaren printzipioa zenbateraino edo zer neurritan betetzen den ere—, zergaren zer osagai —funtsezkoak zein ez— aldatzen dituen araugintza-modu berezi honek eta, azken batean, zein den dena delako arauaren izaera eta irismena» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 7. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa).»

Gogoeta horiek kontuan hartuta, esan daiteke errege lege-dekretu honetan jasotako zerga-neurriek ez dutela urratzen Konstituzioaren 31. artikulua; izan ere, lehen aipatutako 100/2012 epai horretan adierazten den bezala (9. oinarri juridikoa), «ez dute nabarmen aldatzen zergadunek jasan behar duten presio fiskala, eta, ondorioz, ez dute funtsezko aldaketarik eragin herritarrek zerga-sistema osoan duten posizioan, eta, beraz, ez dute ukitu Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua adierazten duen gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharrak konstituzionalaren funtsa» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 137/2003, uztailaren 3koa, 7. oinarri juridikoa, eta 108/2004, ekainaren 30ekoa, 8. oinarri juridikoa). Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen aldaketa kenkari zehatz batzuetara mugatzen da, eta ekoizpen-sektore jakin batera, eta, beraz, ez du irismen orokorrik, eta ez die eragiten zergadun guztiei, ez eta nork bere ahalmenaren arabera gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharrari ere. Gogoeta bera egin behar da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgarako zerga-pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen erreformari eta aparteko interes publikoko gertakartzat jotzen diren programen epea jartzeari edo luzatzeari buruz.

Beraz, hartzen diren neurri guztietan eta horietako bakoitzean, neurrien izaera eta helburua kontuan hartuta, oso gutxitan gertatzen dira horren modu ageriko eta nabarmenean errege lege-dekretuaren tresna juridikoa baliatzeko Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua eskatzen dituen aparteko eta presazko beharizanaren inguruabarrak.

Errege lege-dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eskatzen dituen printzipioekin: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Horren ildotik, dekretuak premiaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen ditu; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian herritar guztien interesa dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik egokiena.

Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasunaren printzipioaz den bezainbatean, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, zeren eta lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren administrazio-kargak ezartzen ditu.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoaren babesean eman da. Artikulu horrek xedatzen duenez, autonomia-erkidegoek beren gain hartzen dituzten eskumenei kalterik egin gabe, Estatuak betebeharrak eta funtsezko eskumenez hartuko du kulturaren zerbitzua, eta, gainera, Konstituzioaren 149.1 artikuluan 1, 13, 14, 17, 18 eta 30. zenbakietan xedatutako eskumen-tituluak erabiliz.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan baimenaz baliatuta, Kultura eta Kiroleko ministroak eta Ogasuneko ministroak proposatuta, Ministro Kontseiluak 2020ko maiatzaren 5eko bilkuran proposamena eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Kultura-sektorearen finantzaketa errazteko eta sektoreko langileei laguntzeko neurriak

1. artikulua. *Zuzeneko dirulaguntzak ematea Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari, kultura-sektorearen finantzaketa sustatzeko.*

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.b) artikulua ezarritakoaren arabera, honako zuzeneko dirulaguntza hauek emango dira kultura-sektorearen finantzaketa sustatzeko:

a) Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari, 16.250.000 euroko laguntza, hornidura teknikoen funtsa diruz zuzkitzeko, 24.04.334C.771 aplikazioaren kargura.

b) Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari, 3.750.000 euroko laguntza, COVID-19ak sorrarazitako krisia dela eta, kultura-sektoreko enpresentzako maileguen abalen irekiera-komisioaren kostua finantzatzeko, 24.04.334C.472 aplikazioaren kargura.

2. Dirulaguntza horiek Kultura eta Kiroleko ministroaren ebazpen baten bidez emango dira, eta Kultura eta Kirol Ministerioak Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari egindako transferentziaren bidez gauzatuko da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 66.1 artikulua xedatutakoari jarraikiz.

3. Ebazpenean, dirulaguntza aurreordainketa bakarrean egingo dela ezarri ahalko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.4 artikulua eta hura garatzen duen erregelamenduak xedatzen dutenarekin bat etorritik.

4. Errege lege-dekretu honek xedatutakoa nahikoa izan ezean, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta hura garatzeko erregelamenduak xedatutakoa aplikatuko zaie dirulaguntza horiei, salbu eta legeak eta erregelamenduak publikitate- eta lehia-printzipioen aplikazioari eragiten dioten guztietan.

5. Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateak, parte hartu nahi duten finantza-entitateekin lankidetzan jardunez, kultura-sektoreko enpresentzako finantzaketa-lerro hauek sustatuko ditu, guztira 780.000.000 eurorenak:

- Ikus-entzunezkoen lerroa.
- Arte eszenikoen lerroa.
- Musika-industriaren lerroa.
- Liburu-industriaren lerroa.
- Arte ederren lerroa.
- Kultura-sektoreko beste enpresa batzuen lerroa.

Lerro bakoitzak bere eremuko proiektuak finantzatuko ditu, eta, gutxienez, 40 milioi euro jasoko ditu, baina zenbateko horrek ez du eraginik izango hornidura teknikoen funtsaren erantzukizun-araubide orokorrean, Elkar Bermatzeko Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legeak ezarritakoari jarraikiz. Dirulaguntza emateko ebazpenak beharrezkoak diren tresnak arautuko ditu, lerroen baten gutxieneko zenbatekoa zehaztutako epean amaitzen ez bada eman gabeko zenbatekoa gainerakoei gehitzeko.

Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateak, hilero-hilero, finantzaketaren banaketaren berri emango du, lerroka, sozietatearen beraren ordezkari batek eta Kulturako Idazkaritza Nagusiko eta Kultura eta Kiroleko Idazkariordetzako titularrek osatutako jarraipen-batzorde batean.

6. Aurreko atalean jasotako lerroei heltzeko abalaren irekiera-komisioaren kostua % 0,5ekoa izango da.

Kostu horiek artikulua honen 1. apartatuaren b) paragrafoan arautzen diren dirulaguntzaren kargura finantzatuko dira.

Lerroen gainerako baldintzak dagokien emakida-ebazpenean zehaztuko dira.

7. Artikulu honetan ageri diren dirulaguntzak ordaintzeko, baimena emango da Kontingentzia Funtse aplikatzeko eta Kultura eta Kirol Ministerioan aparteko kreditu hauek emateko:

3.750.000 euro, 24.04.334C.472 aplikazioaren kargura, «Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari, COVID-19ak sorrarazitako krisia dela eta, kultura-sektoreko enpresentzako maileguen abalen irekiera-komisioaren kostua finantzatzeko».

16.250.000 euro, 24.04.334C.771 aplikazioaren kargura, «Audiovisual-Fianzas elkar bermatzeko sozietateari, hornidura teknikoen funtsa zuzkitzeko».

Aurreko aparteko kredituak honela finantzatuko dira:

9.730.000 euro, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta haren erakunde autonomoen ekarpenetatik eta transferentzietatik bideratuta.

10.270.000 euro, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikulua ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa betetzeko, beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egingo dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritz.

2. artikulua. *Ikuskizun publikoetan aritzen diren eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak araututako kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizketen prozeduren eraginpean ez dauden artisten langabezia-prestazioari heltzeko ezohiko modua.*

1. 2020ko ekitaldian, salbuespenez eta aldi baterako, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 249 ter artikuluan jasotzen diren jarduerarik gabeko aldietan, han araututako babes-neurrien barruan sartuko dira langabeziako prestazio ekonomikoak ere, adingabearen jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko prestazioak, erretirokoak, ezintasun iraunkorragatiko prestazioak eta kontingentzia arrunten ondoriozko heriotza- eta biziraupen-prestazioak ez ezik (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Prestazioa jasotzeko eskubidea eskaera aurkezten den egunaren hurrengotik aurrera aitortuko da; hala ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dira.

Prestazioa bateraezina izango da norberaren edo besteren konturako jardueretatik datorren edozein sarrerarekin, edo beste edozein prestazio, gutxieneko errenta, gizarteratze-errenta, gizarte-soldata edo zeinahi administrazio publikok emandako antzeko beste edozein laguntzarekin.

2. Araubide Orokorrean ikuskizun publikoetako artista gisa sailkatzen dituen lan-jarduera batean diharduten langileei legezko langabezia-egoeran daudela aitortuko zaie, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz ezin badute lanean jarraitu, egoera horri lotuta dauden 2020ko ekitaldiko jarduerarik gabeko aldietan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, bai eta gutxieneko kotizazio-aldia ordainduta daukatela ere, xedapen honen 3. apartatuan adierazten den moduan egiaztatzen badute hori, eta Gizarte Seguratasunari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 262. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako kontribuzio-prestazio arrunta jasotzen ari ez badira edo prestazio hori aukeratu badute.

Prestazioa jasotzeko eskubidea eskaera aurkezten den egunaren hurrengotik aurrera aitortuko da; hala ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dira.

Prestazioa bateraezina izango da norberaren edo besteren konturako jardueretatik datorren edozein prestaziorekin, edo beste edozein prestazio, gutxieneko errenta, gizarteratze-errenta, gizarte-soldata edo zeinahi administrazio publikok emandako antzeko beste edozein laguntzarekin.

3. Xedapen honetan araututako langabezia-prestazioaren iraupena legezko langabezia-egoeraren aurreko urtean jarduera horretan zerbitzuak benetan eman diren Gizarte Segurantzako alta-egunen arabera izango da, honako eskala honen arabera:

Jarduera-egunak	Prestazio-aldia (egunetan)
20-54	120
55etik aurrera	180

4. Aurreko ataletan araututako langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea une bakoitzean kontingentzia arruntengatik indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-oinarria izango da, Araubide Orokorreko kotizazio-taldearen eskalako 7. taldeari dagokiona.

II. KAPITULUA

Arte eszenikoei eta musikari laguntzeko neurriak

3. artikulua. *Arte eszenikoetarako eta musikarako aparteko laguntzen sistema, COVID-19ak sorrarazitako osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondoriozkoa.*

1. Arte eszenikoetarako eta musikarako aparteko laguntzen sistema bat ezarri da, COVID-19aren osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondorioz. Laguntza horiek salbuespenezkoak izango dira, eta behin emango dira, baldintza hauen arabera:

- a) Laguntzak publizitatearen, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraikiz emango dira, norgehiagoka-prozeduraren bidez, xedapen honetan eta deialdiaren ebazpenean ezarritako berezitasunen arabera.
- b) Laguntzak inolako zalantzarik gabe COVID-19aren larrialdiaren ondorioz gertatzen diren egoeretarako dira, deialdiaren ebazpenean adierazten diren baldintzen arabera.
- c) Justifikazio-araubidea deialdiaren ebazpenean ezarriko da.

2. Oro har, arte eszenikoetan eta musikan aritzen diren eta Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dauden pertsona fisikoek eskatu ahalko dituzte laguntza horiek, bai eta arte eszenikoetan eta musikan aritzen diren pertsona juridiko publiko edo pribatuak ere, deialdiaren ebazpenean ezarritako baldintzetan. Eskatzaileek establezimendu iraunkorra izan beharko dute Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko edozein estatutan, tratu-berdintasun osoz.

Deialdi honetatik at geratuko dira zerga-egoitza uztailaren 5eko 1080/1991 Errege Dekretuak zerga-paradisutzat jotako herrialde eta lurraldeetan duten eskatzaileak. Errege-dekretu horren bidez, Presako Zerga Neurriei buruzko maiatzaren 27ko 17/1991 Legeak 2. artikuluan 3. apartatuko 4. zenbakian eta 1991ko ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 31/1990 Legeak 62. artikuluan aipatzen dituzten herrialde edo lurraldeak zehazten dira.

Ezingo dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan xedatutako debekuren bat duten pertsonak edo erakundeak.

3. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren jarduera-eremuaren barruko lerro hauen bidez bideratuko dira laguntzak:

- a) Arte eszenikoen eta musika-artearen egiturei eusteko laguntza.
- b) Jarduera eszeniko eta musikaletarako eta kultura-proiektuetarako laguntzak.

4. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalari dagokio behar beste ebazpen ematea deialdi- eta emakida-prozedurak izapidetzeko eta ebazteko, bai eta laguntzak ordaintzeko ere.

5. Laguntza horiek errege lege-dekretu honetan eta deialdiaren ebazpenean xedatutakoari jarraikiz arautuko dira. Berariaz xedatzen denean baino ez da aplikatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta hura garatzeko erregelamenduan xedatutakoa.

6. Baimena ematen da 23.700.000 euroko kreditu berezi hau emateko: 24. atala «Kultura eta Kirol Ministerioa», 01 zerbitzua «Ministerioa, Idazkariordetza eta Zerbitzu Orokorrak», 000X programa «Barne-transferentziak», 418 kontzeptua «Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalari, COVID-19 koronabirusaren krisialdiak eragindako aparteko beharretarako».

Aurreko apartatuak honako eragin hau izango du INAEM (Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala) erakundean:

DIRU-SARREREN AURREKONTUA:

A) 24.107.400 aplikazioa, «Sailarena, COVID-19aren krisialdiak eragindako aparteko beharretarako», 23.700.000 eurokoa.

GASTUEN AURREKONTUA:

A) 24.107.335A.462 aplikazioa. «Dantza-, lirika- eta musika-jarduerak garatzen dituzten erakundeen kultura-egituretarako laguntzak, COVID-19aren krisiaren ziozko beharretarako», 5.500.000 eurorenak.

B) 24.107.335A.470 aplikazioa. «Dantza-, lirika- eta musika-jarduerak garatzen dituzten erakundeen kultura-jarduera eta -proiektuetarako laguntzak, COVID-19aren krisiaren ziozko aparteko beharretarako», 4.850.000 eurorenak.

C) 24.107.335B.463 aplikazioa. «Antzerki- eta zirku-jarduerak garatzen dituzten erakundeen kultura-egituretarako laguntzak, COVID-19aren krisiaren ziozko aparteko beharretarako», 6.600.000 eurorenak.

D) 24.107.335B.472 aplikazioa. «Antzerki- eta zirku-jarduerak garatzen dituzten erakundeen kultura-jarduera eta -proiektuetarako laguntzak, COVID-19aren krisiaren ziozko aparteko beharretarako», 6.750.000 eurorenak. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikuluan ezarritakoaren arabera finantzatzeko dira aurreko kreditu bereziak.

7. Azaroaren 26ko 47/2003 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, behar diren erabakiak hartuko dira errege lege-dekretu hau aplikatzeak dakartzan betebeharren zenbatekoei erantzuteko kredituak presta daitezten.

4. artikulua. *Eten edo suntsiarazi diren sektore publikoko interpretazio artistikoko eta ikuskizunetako kontratuak.*

1. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua zehazten dituen sektore publikoko erakundeek egindako interpretazio artistikoko eta ikuskizunetako 50.000 eurotik beherako kontratuak aldatzea edo etetea erabakitzen denean COVID-19aren eraginez edo hari aurre egiteko hartutako osasun- edo euste-neurrien eraginez geroagoko data batean gauzatzeko, kontratazio-organoak erabaki ahalko du kontratistari kontratuaren prezioaren ehuneko 30eraino ordaintzea, kontratuaren balioaren konturako aurrerakin gisa (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten du).

Konturako aurrerakina ordaintzeko, ez da beharrezkoa izango kontratistak bermerik jartzea.

2. Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua zehazten dituen sektore publikoko erakundeek egindako interpretazio artistikoko eta ikuskizunetako 50.000 eurotik beherako kontratuak suntsiarazten direnean COVID-19aren eraginez edo hari aurre egiteko hartutako osasun- edo euste-neurrien eraginez lege horren 210. artikulua 1. apartatuko g) letran araututako arrazoiagatik, kontratazio-organoak kontratistaren aldeko kalte-ordaina ordaintzea erabaki ahalko du; kalte-ordain hori ezin izango da kontratuaren prezioaren % 3 baino txikiagoa, ez eta % 6 baino handiagoa ere.

Halakoetan, ez da aplikatuko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 213.4 artikulua ezarritakoa.

III. KAPITULUA

Zinematografiari eta ikus-entzunezko arteei laguntzeko neurriak

5. artikulua. *2016-2019ko aldian laguntzak jasotzen dituzten filmei ezarritako betebeharrak betetzeko epeak luzatzea.*

1. Hemen adierazten diren betebeharrak betetzeko epeak luzatzen dira, aplikagarriak zaizkienerako, ECD/2796/2015 eta CUD/769/2018 aginduen babesean 2016tik 2019ra bitartean proiektuaren arabera film luzeak ekoizteko eman ziren laguntza orokorren eta selektiboan film onuradunei dagokienez, bai eta proiektuaren arabera film laburrak ekoizteko laguntzen film onuradunei dagokienez ere (ECD/2796/2015 Agindua, abenduaren 18koa, zeinaren bidez Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen III. kapituluan ezarritako laguntzak arautzeko oinarriak ezarri ziren eta Zinema eta Ikus-entzunezko Enpresen Administrazio Erregistroaren egitura zehaztu zen, eta CUD/769/2018 Agindua, uztailaren 17koa, zeinaren bidez Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen III. kapituluan ezarritako laguntzak arautzeko oinarriak ezarri ziren eta Zinema eta Ikus-entzunezko Enpresen Administrazio Erregistroaren egitura zehaztu zen); laguntzen deialdiak ebazteko eta laguntzak emateko epeak ere luzatzen dira.

a) Proiektuaren arabera film luzeak ekoizteko laguntza orokorren eta selektiboan onuradun diren eta 2020an estreinatuko diren filmei dagokienez, oinarri arautzaileetan ezarritako epe hauek luzatzen dira:

1. Bost hilabetez luzatu da diru-sarreraren aitorpena Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuan aurkezteko epea.

2. Film luzea zinema-aretoetan estreinatzeko ezarritako gehieneko epea hamar hilabetez luzatu da.

b) Proiektuaren arabera film luzeak ekoizteko laguntza orokorrak eta selektiboak eta proiektuaren arabera film laburrak ekoizteko laguntzak jaso dituzten filmen kasuan, oinarri arautzaileetan ezarritako epe hauek luzatzen dira, epe horiek 2020an amaituz gero, alarma-egoera indarrean jarri denetik aurrera zenbatuta:

1. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari filmatzearen amaiera jakinarazteko eta filmaren kalifikazioa eta nazionalitate-ziurtagiria eskatzeko epea bost hilabetez luzatu da.

2. Filmaren kostua egiaztatzeko epea lau hilabetez luzatu da.

3. Laguntza jasotako filmaren kopia bat Espainiako Filmategiari emateko epea lau hilabetez luzatu da.

2. Ondo justifikatutako kasuetan, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak luzatu ahal izango ditu aurreko paragrafoan ezarritako epeak, laguntzen enpresa onuradunen eskariz eta ebazpen arrazoitu baten bidez.

6. artikulua. *2020an bete beharreko betebeharrak jakin batzuen betetzea malgutzeko neurriak.*

1. Aldatu egiten dira uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduaren 14.1 artikulua d) eta e) letretan eta 23.1 artikulua d) eta e) letretan ezarritako betebeharrak, bai eta deialdi- eta emakida-ebazpenen paragrafo korrelatiboetan ezarritakoak ere, proiektuaren arabera film luzeak ekoizteko laguntza orokor eta selektiboan onuradun diren film zinematografikoen proiektuei dagokienez, ondoko apartatuetan adierazitako baldintzen arabera.

2. Film luzearen estreinaldiari buruzko baldintzak betetzeko eskatzen den areto kopurua, estreinaldi hori 2020an egiten denean, honela murriztuko da:

a) Uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduen 14.1.e) artikuluan eta deialdi- eta emakida-ebazpenen artikulua korrelatiboetan ezarritako betebeharrari dagokionez, estreinaldia areto hauetan egin beharko da:

1. Hogezi zinema-areto, 2.000.000 eurotik gorako kostu aitortua duten film luzeei dagokionez.
2. Hamar zinema-areto, 2.000.000 euroko edo handik beherako kostu aitortua duten film luzeei dagokionez.
3. Sei zinema-areto, jatorrizko bertsioa gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialen batean duten film luzeei dagokionez; horietako hirutan, gutxienez, jatorrizko bertsioan eskainiko dira filmak.
4. Bi zinema-areto, izaera dokumentaleko film luzeei dagokionez.

b) Uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduen 23.1.e) artikuluan eta deialdi- eta emakida-ebazpenen artikulua korrelatiboetan ezarritako betebeharrari dagokionez, estreinaldia zazpi zinema-aretotan egin beharko da; izaera dokumentaleko film luzeak eta jatorrizko bertsioa gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialen batean duten film luzeak, berriz, bi zinema-aretotan estreinatu beharko dira.

3. Uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduen 14.1.d) eta 23.1.d) artikuluetan eta deialdi- eta emakida-ebazpenen artikulua korrelatiboetan ezarritakoari jarraikiz, film luzea Espainiako aretoetan estreinatzeko kopiei, publizitateari eta sustapenari lotutako gastuak, estreinaldi hori 2020an egiten denean, gutxienez % 7koak izango dira laguntza orokorren kasuan, eta % 3koak laguntza selektiboen kasuan. Jasotako laguntza eskatutakoaren % 75 baino txikiagoa izan bada, gastuek gutxienez % 5ekoak izan beharko dute laguntza orokorren kasuan, eta % 2koak laguntza selektiboen kasuan.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoa abenduaren 18ko ECD/2796/2015 Aginduen 14.1 artikuluko d) eta e) letretan eta 22.1 artikuluko d) eta e) letretan ezarritako betebeharrari aplikatuko zaie.

7. artikulua. *Filmatzea hasteko eta jakinarazteko betebeharraren galdagarritasuna.*

1. Filmatzen hasteko eta Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari edo autonomia-erkidegoko erakunde eskudunari jakinarazteko betebeharra, uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduan eta dagozkion deialdi- eta emakida-ebazpenetan ezarritakoa, alarma-egoeraren deklarazioaren indarraldia amaitzen denetik aurrera eskatuko da 2019ko ekitaldian emandako laguntza-lerro hauen onuradun izan diren film zinematografikoen proiektu guztientzat:

- a) Proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko laguntza orokorrak.
- b) Proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko laguntza selektiboak.
- c) Proiektuaren araberako film laburrak ekoizteko laguntzak.

Hala, alarma-egoeraren deklarazioaren indarraldia amaitu ondoren, betebeharrak horri lotutako epea berriro zenbatzen hasiko da, lehendik igarotako epea gorabehera.

2. Atzerriko enprekin egindako koprodukzioen kasuan, bai eta ondo justifikatutako beste batzuen kasuan ere, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak luzatu ahalko ditu betebeharrak hori betetzeko epeak, laguntzen enpresa onuradunen eskariz eta ebazpen arrazoitu baten bidez.

8. artikulua. *Proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko laguntza orokorren ordainketa.*

Uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduan eta laguntzen deialdi- eta emakida-ebazpenetan ezarritakoaren salbuespen gisa, proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko 2019ko ekitaldiko laguntza orokorren enpresa onuradunek, aldezturik eskaera eginda, emandako laguntzaren % 50 jasoko dute, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen

Institutuari edo autonomia-erkidegoko erakunde eskudunari film luzearen filmatzea hasi dela jakinarazteko beharrik izan gabe.

9. artikulua. *Kostuen aitortpena.*

Abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduak xedatzen duenez, filmaren kostutzat joko dira proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko eta proiektuaren araberako film laburrak ekoizteko 2019ko ekitaldian eta —hala badagokio— aurreko ekitaldietan emandako laguntza orokor eta selektiboen enpresa onuradunek egin dituzten gastu diruz lagungarriak, baldin eta COVID-19aren edo horri aurre egiteko ezarritako neurrien ondorioz osorik edo zati batean ezin izan bazaizkio aplikatu diruz lagundutako proiektuari.

10. artikulua. *Filmen estreinaldi komertziala komunikazio-zerbitzu jakin batzuen edo programen katalogoen bidez.*

1. 2020ko abuztuaren 31ra arte, telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen bidez egiten den estreinaldia hartuko da filmen estreinaldi komertzialtzat, bai eta telebista-kateek edo programen katalogoen zerbitzuek zabaltzen dituzten komunikazio elektronikoko zerbitzuen bidez egiten dena ere, abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.a) artikulua ezarritakoaren arabera, film horiek film zinematografikoaren izaera galdu gabe.

2. Filmak aurreko paragrafoan araututako zerbitzuren baten bidez estreinatzen direnean, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak emandako laguntzen onuradun izan diren filmak ez zaizkie eskatuko proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko laguntza orokorreki eta proiektuaren araberako film luzeak ekoizteko laguntza selektiboei dagokienez uztailaren 17ko CUD/769/2018 Aginduaren 14.1 artikuluko d) eta e) letretan eta 23.1 artikuluko d) eta e) letretan hurrenez hurren ezarritako betebeharrak; deialdia egiteko eta laguntzak emateko ebazpenei dagozkien manuetan ezarritakoak ere ez zaizkie eskatuko.

Film horiek nahitaez bete beharko dituzte naziotasun- eta kalifikazio-eskaerei buruzko betebeharrak.

3. Kultura eta Kiroleko ministroaren agindu baten bidez, luzatu ahalko da artikuluko 1. paragrafoan ezarritako epea, baldin eta, hartutako osasun- edo euste-neurrien ondoriozko arrazoiak direla medio, zinema-emanaldien ohiko funtzionamenduak mugatuta jarraitzen badu adierazitako egunean.

11. artikulua. *Zuzeneko dirulaguntzak ematea zinema-aretoen titularrei.*

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.b) artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, eta COVID-19 izurriteak sorrarazitako osasun-krisiaren esparruan, zuzeneko dirulaguntzak ematea ezarri da Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren Enpresa Zinematografikoen Administrazio Erregistroan agertzen diren eta zinema-aretoen titular diren pertsona fisiko edo juridikoentzat.

2. Laguntza horiek COVID-19aren krisiaren eraginez zinema-aretoek 2020. urtean egiten dituzten gastuak ordaintzeko erabiliko dira. Hona hemen gastuak:

a) Hartutako osasun-neurrien ondorioz sortutako ustekabeko gastuak. Besteak beste, langile eta erabiltzaileentzako arriskuen prebentziorako plana ezartzea, desinfektatzea, materiala erostea (maskarak, eskularruak, xaboi desinfektatzailea, manpara edo babeskiak) edo seinale berariazkoak, pertsonen babesa eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren beste elementu eta ekintza batzuen artean.

b) Zinema-aretoak berriro zabaltzeko eta jendea aretoetara berriro joateko kanpainak.

c) Eskolako kanpainen programazioa areagotzen duten jarduketak.

d) Aretoetan espainiar zinema sustatzeko eta trailerra eskaintzeko publizitate-guneak, baita kanpaina instituzionalak erakusteko ere.

3. Baimena ematen da Kontingentzia Funtza aplikatzeko eta 13.252.000 euroko kreditu berezi hau emateko: 24. atala «Kultura eta Kirol Ministerioa», 01 zerbitzua

«Ministerioa, Idazkariordetza eta Zerbitzu Orokorrak», 000X programa «Barne-transferentziak», 419 kontzeptua «Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalari, COVID-19 koronabirusaren krisialdiak eragindako aparteko beharretarako».

Horrek honako eragin hau izango du ICAA (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua) erakundean:

DIRU-SARREREN AURREKONTUA:

A) 24.103.400.02 aplikazioa, «Atxikitako sailarena, COVID-19aren krisialdiak eragindako aparteko beharretarako», 13.252.000 eurokoa.

GASTUEN AURREKONTUA:

A) 24.103.335C.475 aplikazioa. «Osasun-arloan hartutako prebentzio-neurriek eragindako gastuak ordaintzeko, bai eta zinema-aretoak berriz irekitzea ikusarazteko gastuak ordaintzeko ere», 13.252.000 eurokoa.

Aparteko kreditu hori finantzatzeko, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

4. Honako laguntza hauen deialdia Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez egingo da, eta bertan ezarriko dira eskabideak aurkezteko epea eta era, eska daitezkeen baldintzak, diruz lagundutako gastuak justifikatzeko modua eta laguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoa.

5. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa zinema-areto bakoitzak dituen pantailen kopuruaren arabera izango da, honako irizpide hauek aintzat hartuta:

- a) 8.000 eurokoa, pantaila bakarra duten aretoetan.
- b) 14.000 eurokoa, bi pantaila dituzten aretoetan.
- c) 20.000 eurokoa, hiru, lau edo bost pantaila dituzten aretoetan.
- d) 26.000 eurokoa, sei, zazpi edo zortzi pantaila dituzten aretoetan.
- e) 32.000 eurokoa, zortzi pantaila baino gehiago dituzten aretoetan.

6. Laguntza horiek eskuratu nahi dituzten zinema-aretoen titularrek abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 18. artikulua ezarritako Europar Batasuneko estatueta lan zinematografikoen pantaila-kuota bete beharko dute. Hala eta guztiz ere, betebeharrak hori betetzat joko da laguntzak jaso eta hurrengo urtean programatzen diren lanen hamarretik hiru gutxienez horrelakoak direnean.

IV. KAPITULUA

Liburu-sektoreari eta arte garaikidearen sektoreari laguntzeko neurriak

12. artikulua. *Liburu-sektorea sustatzeko laguntzen sistema, COVID-19aren osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondoriozkoa.*

1. Liburuaren eta Irakurzaletasunaren Zuzendaritza Nagusiaren jarduera-eremuan, liburuaren sektoreari ezohiko laguntzak emateko sistema bat ezarri da, sektorearen egiturei eta liburuaren hornidura-kateari eusteko, COVID-19aren osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondorioz. Laguntza horiek salbuespenezkoak izango dira, eta behin emango dira, baldintza hauen arabera:

- a) Laguntzak publizitatearen, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraikiz emango dira, norgehiagoka-prozeduraren bidez, xedapen honetan eta deialdiaren ebazpenean ezarritako berezitasunen arabera.
- b) Laguntzak inolako zalantzarik gabe COVID-19aren larrialdiaren ondorioz gertatzen diren egoerarako dira, deialdiaren ebazpenean adierazten diren baldintzen arabera.
- c) Justifikazio-araubidea deialdiaren ebazpenean ezarriko da.

2. Laguntza horiek, oro har eta deialdiaren ebazpenean ezarritako baldintzetan, liburu-denda independenteei eskatu ahaliko dituzte. Liburu-denda independentetzat establezimendu bat edo bitan liburuak saltzen dituzten negozioak joko dira, haien langile kopurua edo fakturazio-bolumena edozein izanik ere, baldin eta negozio horien liburu-eskaintza handizkari edo banatzaile batek baldintzatuta ez badago, hau da, liburuen erosketa erabaki beregain baten ondoriozkoa denean.

Deialdi honetatik at geratuko dira zerga-egoitza uztailaren 5eko 1080/1991 Errege Dekretuak zerga-paradisutzat jotako herrialde eta lurraldeetan duten eskatzaileak. Errege-dekretu horren bidez, Presako Zerga Neurriei buruzko maiatzaren 27ko 17/1991 Legeak 2. artikulua 3. apartatuko 4. zenbakian eta 1991ko ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 31/1990 Legeak 62. artikuluan aipatzen diren herrialde edo lurraldeak zehazten dira.

Ezingo dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan xedatutako debekuren bat duten pertsonak edo erakundeak.

3. Liburuaren eta Irakurzaletasunaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio behar beste ebazpen ematea deialdi- eta emakida-prozedurak izapidetzeko eta ebazteko, bai eta laguntzak ordaintzeko ere.

4. Laguntza horiek errege lege-dekretu honetan eta deialdiaren ebazpenean xedatutakoari jarraikiz arautuko dira. Berariaz xedatzen denean baino ez da aplikatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen eta hura garatzeko erregelamenduan xedatutakoa.

5. Artikulu honetan azaldutako laguntzak ordaintzeko, baimena ematen da Kontingentzia Funtse aplikatzeko eta 4.000.000 euroko kreditu berezia emateko Kultura eta Kirol Ministerioan, 24.03.334B.777 aurrekontuko aplikazioan («Liburu-sektorearen egiturari eusteko eta liburu-dendak egokitzeko laguntzen sistema, COVID-19aren osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondorioz»).

Aparteko kreditu hori finantzatzeko, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 50. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

6. Aurrekoa betetzeko, beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egingo dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.

13. artikulua. *Espainiako arte garaikidea sustatzeko ezohiko laguntzen sistema, COVID-19aren osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondoriozkoa.*

1. Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiaren jardura-eremuan, arte garaikideari ezohiko laguntzak emateko sistema bat ezarri da, COVID-19aren osasun-krisiaren eragin kaltegarriaren ondorioz.

Laguntzak Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiaren jardura-eremuaren barruko lerro hauen bidez bideratuko dira:

- a) Espainiako arte garaikidea sustatzeko laguntzak.
- b) Espainiako arte garaikidea berariaz eskuratzeko laguntzak.

2. Espainiako arte garaikidea sustatzeko laguntzak baldintza hauen arabera emango dira:

a) Laguntzak publizitatearen, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraikiz emango dira, norgehiagoka-prozeduraren bidez, xedapen honetan eta deialdiaren ebazpenean ezarritako berezitasunen arabera.

b) Eskabideak deialdiaren ebazpenean ezarritako baldintzen arabera balioetsiko dira. Laguntza hauek inolako zalantzarik gabe COVID-19aren larrialdiaren ondorioz gertatzen diren egoerak aintzat hartuko dituzte, deialdiaren ebazpenean adierazten diren baldintzen arabera.

- c) Justifikazio-araubidea deialdiaren ebazpenean ezarriko da.

3. Espainiako arte garaikidea sustatzeko laguntzak, oro har eta deialdiaren ebazpenean ezarritako baldintzetan, egoitza Espainian duten arte-galeriek edo lurralde horretan bizi diren artista bisualek, kritikariek eta komisarioek eskatu ahalko dituzte.

Deialdi honetatik at geratuko dira zerga-egoitza uztailaren 5eko 1080/1991 Errege Dekretuak zerga-paradisutzat jotako herrialde eta lurraldeetan duten eskatzaileak. Errege-dekretu horren bidez, Presako Zerga Neurriei buruzko maiatzaren 27ko 17/1991 Legeak 2. artikulua 3. apartatuko 4. zenbakian eta 1991ko ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 31/1990 Legeak 62. artikuluan aipatzen diren herrialde edo lurraldeak zehazten dira.

Ezingo dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan xedatutako debekuren bat duten pertsonak edo erakundeak.

4. Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiari dagokio behar beste ebazpen ematea deialdi-eta emakida-prozedurak izapidetzeko eta ebazteko, bai eta laguntzak ordaintzeko ere.

5. Errege lege-dekretu honetan arautzen ez den guztiari dagokionez, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta hura garatzen duen erregelamenduak xedatutakoa aplikatuko zaie laguntza horiei, osagarri gisa.

6. Artikulu honetan ageri diren laguntzak ordaintzeko, baimena emango da Kontingentzia Funtsekin 1.000.000 euroko zenbatekoa aplikatzeko Kultura eta Kirol Ministerioaren aurrekontuan, bai eta aurrekontuko aldaketa hauek egiteko ere:

a) Kreditu-gehigarria 24.05.333B.471 aurrekontuko aplikazioan («Espainiako arte garaikidea sustatzeko laguntzak»), 500.000 eurokoa.

b) Aparteko kreditua 24.05.337C.625 aurrekontuko aplikazioan («Espainiako arte garaikideari atxikitako lanak eskuratzea Estatuko Bilduma Publikoentzat, zerga-egoitza Espainian duten arte-galeria eta sortzaileei»), 500.000 eurokoa.

Aurrekontuko aldaketa horiek finantzatzeko, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 50. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

7. Aurrekoa betetzeko, beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egingo dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz.

V. KAPITULUA

Beste neurri batzuk

14. artikulua. *COVID-19aren ondorioz bertan behera geratu diren diruz lagundutako kultura-jarduerak.*

Kultura-jarduera, -helburu edo -proiektuak egiteko emandako dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradunei ordaindu egingo zaie diruz lagundu den jarduera, helburua edo proiektua egiteko egin dituzten gastu diruz lagungarrien zenbatekoa, behar bezala egiaztatuta badaude eta berreskuraezinak badira, eta jarduera-proiektuok osorik edo zati batean ezin izan badira gauzatu COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta haren luzapenek xedatutako neurrien ondorioz edo COVID-19aren osasun-krisiari aurre egiteko agintari eskudunek hartutako neurrien ondorioz.

15. artikulua. *Kirol Kontseilu Gorenak iragarritako laguntzak.*

COVID-19aren edo hari aurre egiteko hartutako osasun- edo euste-neurrien ondorioz kirol-lehiaketak bertan behera geratzen badira, eta proba edo lehiaketa horietako emaitzek Kirol Kontseilu Gorenak izapidetutako deialdietan kirolariei eman beharreko bekak edo laguntza publikoak zehazteko balio badute, luzatu egingo dira aurreko ekitaldian lortutako kirol-emaitzengatik emandako bekak eta laguntzak.

Lehen xedapen gehigarria. *Estatuaren bermea, interes kultureleko artelanetarako.*

1. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta atxikitako erakunde publikoen eskumen eskusiboko erakundeetan erakusteko aldi baterako lagatako artelanei edo artelan multzoei dagokienez Estatuak emandako konpromisoen zenbateko oso metatua, une oro, 2.250 milioi eurokoa izango da gehienez 2020ko ekitaldian, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan ezarritakoaren arabera. Gehieneko zenbateko horretatik kanpo geratuko da xedapen gehigarri honetako 2. apartatuan jasotako zenbatekoa.

Erakusketa berean jarriko diren artelanetarako edo artelan multzoetarako 2020an lehen aldiz emandako konpromiso espezifikoen gehieneko muga 231 milioi eurokoa izango da. Artelanak lagatzaileei itzuli ondoren, eta erakusketa-arduradunek emandako bermea gorabeherarik gabe bukatu dela egiaztatutakoan, konprometitutako zenbatekoak beste erakusketa bati eman ahal izango zaizkio.

Salbuespen gisa, 231 milioi eurotik gorakoa izan ahal izango da muga hori, Ministroen Kontseiluak hala erabakita, Gobernuko hirugarren presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroaren proposamenez, Kultura eta Kirol Ministerioaren ekimenez.

Artelan batean gehienez konprometitutako zenbatekoa 100 milioi eurokoa izango da, Estatuaren Bermeak estal dezan.

2. Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioak Espainian dituen egoitzetan erakutsi beharreko artelanei dagokienez, fundazio horri emandako konpromiso espezifikoen gehieneko muga 500 milioi eurokoa izango da 2020an. Konpromiso horiek kontratu honen barruan emango dira: «Artelanak mailegatzeko kontratua; alde batetik, Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioaren eta, bestetik, Omicron Collections Limited, Nautilus Trustees Limited, Coraldale Navigation Incorporated, Imiberia Anstalt eta Carmen Thyssen-Bornemisza baroisaren artekoa».

3. 2020an, Estatuaren Bermea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Ondare Nazionaleko Administrazio Kontseiluak eta «Sociedad Estatal de Acción Cultural SA (AC/E)» sozietateak antolatutako erakusketei ere aplikatuko zaie, baldin eta Estatuko Administrazio Orokorra titularra duten erakundeetan egiten badira. Orobat, Lázaro Galdiano Fundazioak bere museoaren egoitzan antolatutako erakusketei aplikatuko zaie Estatuaren Bermea.

Bigarren xedapen gehigarria. *«Berlanga plana» deiturikoari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

1. «Berlanga plana» izeneko aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Gertakari horri laguntzeko programak 2020ko apirilaren 1etik 2023ko martxoaren 31ra arte iraungo du.

3. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

4. Gertakaria behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren jarduketak egingo dira. Organo eskudunak edukiko du planak eta jarduera zehatzen programak prestatzeko eta gauzatzeko ardura, abenduaren 23ko 49/2002 Legean ezartzen denari jarraikiz.

5. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Hirugarren xedapen gehigarria. *«Alicante 2021. Belaontzien Munduko Itzuliaren Irteera» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

1. «Alicante 2021. Belaontzien Munduko Itzuliaren Irteera» aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta

mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Gertakari horri laguntzeko programak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

3. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

4. Gertakaria behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren jarduketak egingo dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

5. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Laugarren xedapen gehigarria. *«Espainia, Ohorezko Herrialde Gonbidatua Frankfurtoko Liburu Azokan 2021ean» ekitaldiari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

1. «Espainia, Ohorezko Herrialde Gonbidatua Frankfurtoko Liburu Azokan 2021ean» izeneko ekitaldia aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, Irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Gertakari horri laguntzeko programak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko azaroaren 30era arte iraungo du.

3. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

4. Gertakaria behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren jarduketak egingo dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

5. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Bosgarren xedapen gehigarria. *«Errege Antzokiaren kaleko opera sustatzeko plana» gauzatzeko aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Errege Antzokiaren kaleko opera sustatzeko plana» deritzona 2020-2021eko, 2021-2022ko eta 2022-2023ko denboraldietan gauzatuko da, eta aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, Irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2020ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duenaren arabera egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren jarduketak egingo dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Seigarren xedapen gehigarria. *«Gran Teatre del Liceu antzokiaren eraikuntzaren 175. urteurrena» deritzon gertakariari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Gran Teatre del Liceu antzokiaren eraikuntzaren 175. urteurrena» deritzona aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, Irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2020ko abenduaren 1etik 2023ko azaroaren 30era arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren jarduketak egingo dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen gizarte-eginkizuna.*

Honako errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, bi urtean, ez dira aplikatuko Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginaren 177.6 artikuluan araututako gutxieneko ehunekoak (apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina), eta arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatu egingo dira. Bitarte horretan, jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituen erakunde baten batzar orokorrak ehuneko horiek aldatu ahal izango ditu, erakundeko kideen aldeko laguntza-jarduerak egiteko baliatzen direnak igotzeko.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko erakundeek bideratutako kontratazio-prozedurekin jarraitzea eta hastea alarma-egoeraren indarraldian.*

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutako ondorioetarako, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, sektore publikoko entitateek (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua jasotzen dituen horiek) sustatutako kontratazio-prozeduren baldintzen etendura eta epeen etendura kentzea erabakitzen da, baldin eta izapidetzea bitarteko elektronikoa erabiliz egiten bada (9/2017 Legearen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

Aurreko paragrafoan xedatutakoak kontratazio-prozedura berriak hastea ahalbidetuko du, baldin eta haiek ere bitarteko elektronikoen bidez izapidetzen badira.

Neurri hori bi kasuetan bidezkoak diren errekurtso berezietara hedatuko da.

Azken xedapenetako lehena. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea.*

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak dituela, aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 36. artikuluen 1 eta 2. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1. Serieko produkzio industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen duten zinemako film luzeen eta laburren eta fikziozko, animaziozko edo izaera dokumentaleko ikus-entzunezko serieen produkzio espainiarretan egindako inbertsioek kenkaria egiteko eskubidea izango dute:

- a) Ehuneko 30eko kenkaria kenkariaren oinarriaren lehen milioiari dagokionez.
- b) Zenbateko horretatik gorako ehuneko 25eko kenkaria.

Kenkariaren oinarria produkzioaren kostu osoa izango da, baita ekoizlearen kargura ordaindu beharreko publizitate- eta sustapen-gastuak nahiz kopietarako gastuak ere –ekoizpen-kostuaren ehuneko 40ko muga, bien kasuan–.

Kenkari-oinarriaren ehuneko 50ek, gutxienez, Espainiako lurraldean egindako gastuekin lotuta egon beharko du.

Kenkari horren zenbatekoa ezingo da 10 milioi eurotik gorakoa izan.

Koprodukzioen kasuan, apartatu honetan adierazitako zenbatekoak kasuan kasuko partaidetza-ehunekoaren arabera zehaztuko dira koproduttore bakoitzarentzat.

Kenkaria aplikatzeko, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a') Produkzioak dagokion nazionalitate-ziurtagiria lortu beharko du, baita edukiarekin lotutako izaera kulturala, Espainiako errealitate kulturalarekin duen lotura edo Espainian ematen diren obra zinematografikoen aniztasun kulturalaren aberastasunerako ekarpena egiaztatzen duena ere; horiek Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak egingo ditu, edo dagokion organoak arlo honetan eskumena daukan autonomia-erkidegoan.

b') Espainiako Filmotekan edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoak ofizialki aitortutako filmotekan, ekoizpenaren kopia bat eta egoera ezin hobean utzi beharko da.

Apartatu honetan aurreikusitako kenkaria zergaldi bakoitzean sortuko da hari dagokion ekoizpen-kostua kontuan hartuta; dena den, obraren ekoizpena amaitu den zergalditik aurrera aplikatuko da.

Halere, eta animazio-ekoizpenen kasuan, apartatu honetan xedatutako kenkaria aurreko a') idatz-zatian adierazitako nazionalitate-ziurtagiria lortu den zergalditik aurrera aplikatuko da.

Kenkariaren oinarria murriztu egingo da kenkari-eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jaso diren dirulaguntzen zenbatekotik.

Kenkari horren zenbatekoak, jasotako gainerako laguntzekin batera, ezingo du gainditu ekoizpen-kostuaren ehuneko 50. Nolanahi ere, muga hori honelaxe igoko da:

a'') Ehuneko 85, film laburrei dagokienez.

b'') Ehuneko 80, zinema-aretoetan ustiapen komertzialerako kalifikatutako bi film luze baino gehiago berak bakarrik edo besterekin batera zuzendu ez dituen pertsona batek zuzendutako ekoizpenei dagokienez, baldin eta horien ekoizpen-aurrekontua 1.500.000 eurotik gorakoa ez bada.

c'') Ehuneko 80, oso-osorik gaztelania ez den hizkuntza koofizialetako batean filmatutako ekoizpenei dagokienez, baldin eta Espainian hizkuntza koofizial horretan edo azpitoluekin proiektatzen badira.

d'') Ehuneko 80, organo eskudunak aitortutako ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonen soilik zuzendutako ekoizpenei dagokienez.

e'') Ehuneko 75, emakume zuzendariak soilik egindako ekoizpenei dagokienez.

f'') Ehuneko 75, balio kultural eta artistiko berezia duten ekoizpenei dagokienez, baldin eta aparteko finantzaketa-laguntza behar badute ministerioaren agindu baten bidez edo laguntza-deialdietan ezarritako irizpideei jarraikiz.

g'') Ehuneko 75, dokumentalei dagokienez.

h'') Ehuneko 75, 2.500.000 eurotik beherako ekoizpen-aurrekontua duten animaziozko lanei dagokienez.

i'') Ehuneko 60, Europar Batasuneko estatu batek baino gehiagok finantzatutako mugaz gaindiko ekoizpenen kasuan, baldin eta estatu kide bateko baino gehiagoko ekoizleek parte hartzen badute.

j'') Ehuneko 60, Iberoamerikako herrialdeekin batera egindako nazioarteko koprodukzioei dagokienez.

2. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Zinematografia Enpresen Administrazio Erregistroan erregistratutako ekoizleek, baldin eta serieko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat gauzatzea ahalbidetzen duten film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko lanen atzerriko ekoizpena gauzatzeaz

arduratzen badira, eskubidea izango dute Espainiako lurraldean egindako gastuengatik kenkari bat izateko:

- a) Ehuneko 30ekoa, kenkariaren oinarriaren lehen milioiari dagokionez.
- b) Zenbateko horretatik gora, ehuneko 25eko kenkaria.

Gastu horiek gutxienez milioi bat eurokoak badira aplikatuko da kenkaria. Hala ere, Espainiako lurraldean egindako animazio eta efektu bisualetarako preprodukzioa eta postprodukzioa gastuetarako, muga 200.000 eurokoa izango da.

Kenkariaren oinarria Espainiako lurraldean egin diren eta ekoizpenarekin lotura zuzena duten honako gastu hauek osatuko dute:

1. Langile sortzaileen gastuak, horiek zerga-egoitza Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko estaturen batean badute; gehienez ere, 100.000 euro pertsona bakoitzeko.
2. Industria teknikoak eta beste hornitzaile batzuk erabiltzetik eratorritako gastuak.

Kenkari horren zenbatekoa ez da 10 milioi eurotik gorakoa izango gauzatutako ekoizpen bakoitzeko.

Apartatu honetan aurreikusitako kenkaria lege honen 39. artikulua 1. apartatuko azken paragrafoan adierazitako mugatik kanpo geratuko da. Muga hori kalkulatzeko orduan, ez da kenkari hori zenbatuko.

Kenkari horren zenbatekoak, zergadunak jasotako gainerako laguntzekin batera, ezingo du ekoizpen-kostuaren ehuneko 50 gainditu.

Honako kenkari hau baliatzeko eskubideari lotutako baldintzak eta prozedurak zein diren ezarri ahal izango da erregelamendu bidez».

Azken xedapenetako bigarrena. *Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legea aldatzea.*

2020ko urtarilaren 1etik aurrera ondorioak dituela, Irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 19. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaindu behar duten zergadunek kuota osotik kendu ahal izango dute lege honen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako kenkaria baliatzeko eskubidea duten emari, dohaintza eta ekarpenen multzoari dagokion kenkariaren oinarriari honako eskala hau aplikatuzetik lortutako emaitza:

Kenkariaren oinarria zenbateko honetaraino	Kenkariaren ehunekoa
150 euro.	80
Kenkari-oinarriaren gainerakoa.	35

Aurreko bi zergaldietan kenkariak baliatzeko eskubidea duten emari, dohaintza eta ekarpenak egin badira entitate beraren alde, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa aurreko ekitaldietakoa bestekoa edo handiagoa bada, kenkariaren oinarriari aplikagarria zaion entitatearen aldeko kenkaria ehuneko 40koa izango da, zenbatekoa 150 eurotik gorakoa denean.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Otsailaren 17ko 3/2017 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren 2. apartatua aldatzea, «2020. urteko Tokioko Jokoetako kirolari espainiarrak prestatzeko programaren» iraupena luzatzeko.*

Otsailaren 17ko 3/2017 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren 2. apartatua aldatzen da (3/2017 Errege Lege Dekretuak kirol-jardunean kirolariaren osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoa aldatzen du eta 2015eko Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen bidez sartutako aldaketetara egokitzen) eta honela idatzita geratzen da:

«2. Programa horrek 2017ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte iraungo du».

Azken xedapenetako laugarrena. *Ekainaren 27ko 3/2017 Legearen hirurogeita laugarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua aldatzea, «Fernando Magallanes eta Juan Sebastián Elkanoen munduaren inguruko lehen itzuliaren V. mendeurrena» gertakariari emandako laguntzaren iraupena luzatzeko.*

Estatuaren 2017ko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen hirurogeita laugarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2017ko maiatzaren 8tik 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hirurogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua eta laurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua aldatzea, «Andalucía Valderrama Masters» eta «Jakuetar Urte Santua 2021» gertakariei emandako laguntzaren iraupena luzatzeko.*

Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean, aldaketa hauek egiten dira:

Bat. Hirurogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2018ko uztailaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte iraungo du».

Bi. Laurogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2018ko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era arte iraungo du».

Azken xedapenetako seigarrena. *Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzea.*

Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 81. artikulua 3. apartatuko b) paragrafoa aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«b) Zerbitzu akademikoen prezio publikoengatik eta legez ezarritako gainerako eskubideengatik dagozkion diru-sarrerak. Estatu osoan baliozkoak diren titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketen kasuan, autonomia-erkidegoak ezarriko dituzten prezio publikoak eta eskubideak, betiere, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak ezarritako gehieneko muga barruan. Hala, zerbitzua eskaintzeagatik kostuaren arabera izango dira.

Era berean, prezio publikoen eta gainerako eskubideen arloan lege ezarritako salbuespen eta murrizketen ziozko zenbatekoei dagozkien konpentsazioak kontsignatuko dira».

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 26. artikulua aldatzea.*

Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 26. artikuluen 4. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Patronatuko kide izango dira, estatutuetan xedatutakoaren arabera, besteak beste, Espainiako Futbol Federazioa eta Futbol Liga Profesionala («LaLiga»). Halaber, Espainiako kirol-federazioen eta lehiaketa ofizial eta ez-ofizialen ordezkariak batek parte hartuko du patronatuan, estatutuetan ezarritako moduan».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legea aldatzea.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 33. artikuluen 2 eta 3. apartatuak aldatzen dira eta honela idatzita geratzen dira:

«2. Botere adjudikatzaitzat hartzen ez den sektore publikoko erakunde baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatua egiten duen enteak mandatuaren hartzaile den entearen kontrola izatea, zuzenekoa zein zeharkakoa, lege honen 32.2.a) artikuluen lehen eta bigarren paragrafoetan ezarritakoaren zentzuan.

b) Mandatuaren hartzaile den entearen kapital edo ondare guztia titulartasun publikokoa izatea.

c) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela mandatua ematen duen eta hura kontrolatzen duen erakundeak —edo mandatua ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek— emandako eginkizunak betez.

Letra honetan ezarritako baldintza egiaz betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, oroitidazkian, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoretza egitean, kontuen auditoriaren jardura arautzen duen araudiari jarraituz.

3. Artikulu honen 2. apartatua aplikatuko da, halaber, Estatuko sektore publikoko erakunde batek sektore bereko beste bati mandatu bat ematen dionean, baldin eta mandatua ematen duen erakundea eta mandatua jasotzen duen erakundea zuzenean edo zeharka sektore horretako erakunde berak kontrolatzen baditu eta, gainera, mandatuaren hartzaile den erakundearen kapitala edo ondare osoa titulartasun publikokoa bada. Kasu horretan, aurreko 2.c) apartatuko betekizuna, zeina bertan xedatutako moduan egiaztatu beharko baita, betetzat joko da, mandatua ematen duen erakundeak, mandatua ematen duen erakundea eta jasotzen duena zuzenean edo zeharka kontrolatzen duen erakundeak eta hark zuzenean edo zeharka kontrolatutako beste edozein erakundek agindutako eginkizunak betetzean egiten diren jardueren multzoari dagokionez. Kasu horietan, mandatua jasotzen duen erakundeak jaso beharreko konpentsazioa mandatua ematen duen erakundea eta mandatua jasotzen duen erakundea kontrolatzen dituen

erakunde publikoak onartu beharko du, eta konpentsazio hori eta mandatuaren gainerako baldintzak merkatuko baldintza orokorretara egokitu beharko dira, lehia askea desitxuratu ez dadin.

Autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek ere erabili ahal izango dute aurreko paragrafoan ezarritako aukera, zeinek bere sektore publikoaren barruan».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da eta horrek ondorioak izango ditu martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Azken paragrafoa gehitzen zaio 34. artikuluaen 1. apartatuari, eta honela idatzita geratzen da:

«Paragrafo honetan xedatutakoaren arabera etenda geratu diren elkarren segidako zerbitzu- eta hornidura-kontratueta, kontratazio-organoak, kontratistak hala eskatuta, dagokion kalte-ordainaren zenbateko zenbatetsiaren konturako aurrerakin bat eman ahal du. Aurrerakina ordainketa bakarrean edo aldizka ordaindu ahal izango da. Geroago, aurreratutako zenbatekoa kontratuaren likidaziotik deskontatuko da. Kontratazio-organoak, aurrerakina egiteko, aurrerakin hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean araututako edozein berme-eraren bidez ziurtatzea eskatu ahal izango du».

Bi. 34. artikuluaen 4. apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Apartatu honetan xedatutakoa soil-soilik aplikatu ahal izango da baldin eta kontratazio-organoak, kontratistak hala eskatuta, lehen paragrafoan deskribatutako egoeraren ondorioz kontratua egikaritzea ezinezkoa dela hauteman badu, eta, betiere, ezintasun horrek eragindako kontratu-zatiari dagokionez».

Hiru. Azken paragrafoa gehitzen zaio 34. artikuluaen 7. apartatuari, eta honela idatzita geratzen da:

«Era berean, «kontratu publikotzat» hartuko dira obra-kontratuak eta obra-kontratu nagusi baten osagarri diren eta prestazioa behar bezala emateko beharrezkoak diren zerbitzu- edo aholkularitza-kontratuak eta laguntza-kontratuak, bai eta emakida-kontratuak ere, izan obrenak izan zerbitzuenak, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak barnean direla; betiere, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan adierazten diren Sektore Publikoko erakundeek egindakoak izan behar dute, eta indarrean egon behar dute errege lege-dekretu hau indarrean jartzerako, baldintza-agiriaren arabera kontratazio publikoari lotzen dituen araudia edozein delarik ere. Horrelako kontratueta, honako artikulua honetan aipatzen diren etetei ez zaie aplikatuko, 1 eta 3. apartatueta jasotako xedapenez gain, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren aurreko kontratazio publikoaren araudian kontratuak eteteagatiko kalte-ordainei buruzko artikulua xedatutakoa, baldin eta kontratuei aplikatzekoa bada, ez eta, kontratazio publikoko araudiaren esparruan, kontratuen baldintza-agirietan arautzen diren eteteagatiko kalte-ordainak ere uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan».

Azken xedapenetako hamargarrena. *Babes-klausula, beheragoko mailako arauen aldaketetarako.*

Errege lege-dekretu honek aldatutako arauen mailari eutsiko zaio, horiek maila txikiagoko arauak direnean.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoaren babesean eman da, eta Konstituzioaren 149.1 artikuluen 1, 13, 14, 17, 18 eta 30. zenbakietan xedatutako eskumen-tituluei erreparatuta, era berean. 149.2 artikulua xedatzen duenez, autonomia-erkidegoek eskumenak beren gain hartu ahal izango dituztela alde batera utzi gabe, Estatuak betebeharrak eta funtsezko eskumentzat hartuko du kulturaren zerbitzua. Aipatu diren 149.1 artikuluko zenbakiek, berriz, hauek esleitzen dizkiote Estatuari: konstituzio-eskubideak baliatzearen eta konstituzio-betebeharrak betetzearen inguruan espainiar guztien berdintasuna bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzeko eskumena; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Ogasun orokorra eta Estatuaren Zorra; Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta araubide ekonomikoa, haren zerbitzuak autonomia-erkidegoek ematea alde batera utzi gabe; administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko legeria; eta titulu akademikoak eta lanbide-tituluak lortzeko, emateko eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Erregelamenduz garatzea eta betearaztea.*

Gobernuari eta ministerioko sail guztietako titularrei, nori bere eskumenen esparruan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean».

Madriren, 2020ko maiatzaren 5ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN